

Asisko gutuna

2024ko urtarrila

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

183. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Behartsuen bizi-baldintzak aldatzen lagunduz solidarioak izan nahian, gu gara aldaketa gehien izaten ditugunak.

Gogoetarako gaia

Elkartasunak bizitza markatzen du

Duela urte gutxi batzuk, Gobernu Kanpoko Erakunde bateko kooperante batek, errefuxiatu siriarrerekin egindako lan-kanpaina batetik itzultzean, esan zuen ez zela lehengo pertsona bera izango. Egindako lanak baino gehiago errefuxiatuekiko harreman pertsonalak markatu zuen bera betiko. Eguneroko ohiko bizitzara itzultzean, egindako zerbitzuaren ondorengo lehen inpresio horiek leundu egin ziren ziurrenik. Baina, egia esan, kooperanteari marka ezabaezina utzi zion.

Elkartasunak, era guztietan, norberaz eta munduaz dugun begirada aldatzera eramaten ditu pertsonak. Elkartasunak, eskuzabaltasun ekintza puntualetatik haratago badao, pertsona barrutik harrapatzen du eta aldatu egiten du. Lehenik eta behin, deskolokatu egiten gaitu eta pertsonak ulertzeko ditugun eskema eta moduetatik ateratzen gaitu. Beste balio batzuk agertzen dira, pertsonen eta egoeren buruzko beste begirada batzuk, orain arte ez bezalakoak. Norbera pixkanaka eraldatzen da, eta besteak eta,

batez ere, ahulenak beste era batera hautematen hasten da. Proiektu solidarioek arrakasta izan dezakete edo ez; egokiak edo lekuz kanpokoak izango dira; gaixo, ahul edo hauskor den norbaiten alde egindako entrega eraginkorra izango da edo ez. Baina eskuzabaltasunez izan bada, besteen hauskortasunaren eraginpean egon den pertsona markatuta geratzen da, eta bere bizitzan susmatu gabeko dimentsio berriak irekiko lehenxeago ez bezala.

Egia esan, pertsona batzuek bizitzan biraketa bat ematen dute eta solidario bihurtzen dira. Baina egia da, era berean, elkartasun-ekintza batek aldarazi egiten duela pertsona solidario bera. Gu aldatzen gaituena ez da elkartasun egintza bat egiteak; ahulekin elkartzeak ematen digu beste ikuspegi bat. Gu bezalakoak izanik, bizitzako zirkunstantziengatik edo egitura bidegaberen batek egoera ankerretan kokatu diren pertsonekin dugun harremanak marka bat utziko digu betiko gure bizitzan.

Bibliako pasartea: Dt 14,28-29; 15,7-11

Hiru urtez behin, urteko uztaren emaitzen hamarrena bereizi eta hiriko biltegian gordeko duzue; horrela, zuekin bizi diren etorkin, umezurtz eta alargunek zer jana izango dute; eta Jaunak zeuen Jainkoak eginkizun guztiak ongi burutzeko bidea emango dizue. Jaunak zeuen Jainkoak emango dizuen lurraldeko hiriren batean zuen herritarren bat behartsu bada, ez izan bihozgabe, ez laguntzarik ukatu senide behartsuari; eskuzabal izango zarete berarekin eta bere premia estaltzeko behar duena emango diozue maileguz. Ez da herrian behartsurik faltako; horregatik agintzen dizuet zeuen herritarrekin, zeuen ardurapean dituzuen dohakabe eta behartsuekin, eskuzabal izateko.

Frantziskotar espiritualtasuna

Frantzisko Jaunari kartsuki otoitzean ari zitzaion batean, erantzun hau jaso zuen: "Frantzisko, beharrezko duzu lehen giza erara maite eta eduki nahi izan duzun guztia mesprextatu eta gorrotatzea, nire nahia eza-gutu nahi baduzu ..., eta lehen latz egiten zitzaizun hartan gozotasun handia eta neurrigabeko leuntasuna aurkituko duzu».

Hitz hauekin pozturik eta Jaunarengan indarberriturik, Asis inguruan zaldiz zebilen batean, legendun batekin egin zuen topo bidean. Legendunenganako nazka betikoa zuen arren, bere buruari gogor eginez, zaldi gainetik jaitsi eta txanpon bat eman zion, eskuan muin eginez.

Egun batzuk geroago, dirutza handia hartu eta legendunen etxera joan zen. eta, denak batera bildurik, limosna bana eman zien, eskuan muin eginez. Handik itzultzean, lehen benetan samin egiten zitzaiona, legendunak ikustea eta ukitzea alegia, gozotasun bihurtu zitzaion. Izan ere, berak zioenez, hain samin egiten zitzaion legendunak ikustea, ez baitzen haien bizilekuetara hurreratu ere egiten. Baina Jaungoikoaren graziari esker, legendunen lagun eta adiskide egin zen eta, bere Testamentuan dioen bezala, beraiekin bizi zen eta apalki zerbitzatzen zituen. (HLaLe 11)

Otoitza

Zure isiltasun gozoan eskaintzen diguzu

zure hitza izatea

milaka hizkuntzatan itzulia,

egoera guztietara egokitua.

Gure ezpainetan adierazi nahi duzu,

xuxurla egitean gaixoari,

injustizia astintzen duen oihuan,

haur bat alfabetatzen duen silaban.

Gure historiarekiko errespetuan

zure eskuak izatea eskaintzen diguzu,

arroza ekoizteko,

familiako arropa garbitzeko,

kirurgia baten bidez bizia salbatzeko,

kopetako sukarra arintzen duen

edo musuan maitasuna pizten duen

hatzen ferekan iristeko.

Zure itxurazko paralisian

bideak ibiltzera bidaltzen gaituzu.

Zure oinak gara eta

bizitza baztertuengana hurbiltzen zaitugu,

oinkada leunez ez esnatzeko

beren inozentzia lotan duten haurrak,

oinkada gogorak meategira jaisteko

edo gutun perfumatu bat presaka eramateko.

Zure belarriak izatea eskatzen diguzu,

Zure entzuteak aurpegia izan dezan,

arreta eta sentimendua,

airean diluitu ez daitezen

zure ausentziaren aurkako keak,

min ematen duten iraganeko aitorpenak.

Gutuneko azken hitzak

“Jakintsuak ez du pilatzen. Zenbat eta gehiago lagundu besteei, orduan eta gehiago jasotzen du. Zenbat eta gehiago eman besteei, orduan eta gehiago lortzen du berarentzat”. Lao Tse

2024ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 1, 14-20	15 Mk 2, 18-22	22 Mk 3,22-30	39 Mk 5,1-20
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 1, 21-28	16 Mk 2, 23-28	23 Mk 3, 31-35	30 Mk 5,21-43
3.Jn 1, 29-34	10 Mk 1, 29-39	17 Mk 3, 1-6	24 Mk 4, 21-25	31 Mk 6,1-6
4 Jn 1, 35-42	11 Mk 1, 40-45	18 Mk 3, 7-12	25 Mk 16,15-18	
5 Jn 1, 43-51	12 Mk 2, 1-12	19 Mk 3, 13-19	26 Mk 4, 26-34	
6 Mt 2,1-12	13 Mk 2, 13-17	20 Mk 3, 20-21	27 Mk 4, 35-41	
7 Mk 1, 7-11	14 Jn 1,35-42	21 Mk 1,14-20	28 Mk 1, 21-28	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza hilaren
25ean izango da.